

GUZTIEN AITA

1

Zeruko Jaungoiko ona,
Aita zaitugu danona.
Aita-bihotzez bilatzen dozu
gizon danon zoriona;
zaindu egizu seme-alabon
senide hartu-emona.

2

Aitak besterik ez dau nahi
danok gaitetzala anai.
Ateo, kristau, zuri eta baltz
pekatariak ere bai;
danok etxean ikusi arte
Aitak ezin dau egin jai.

3

Maite gaitu Jaungoikoak
geu garean modukoak.
Berak eginak gara guztiok
Aitak bere antzekoak;
ez daigun ahaztu munduan danok
garala mahai batekoak.

4

Batzuk danetatik asez,
beste batzuk hiltzen gosez.
Diruz ta eskuz alkar-lagunduz
ez da nahikoa bihotzez;
danok mahai baten ikusi eta
orduan bai Aita pozez!

5

Famili baten giruan
ta mahai baten inguruan;
asmo ederrak darabiltz Aitak
bere bihotz ta buruan:
sendi bakar bat osotu nahirik
munduan eta zeruan.

6

“Nik txit maite dot Jainkoa
eta hor konpon urkoa”...
-”Nik, barriz, maite dot urkoa ta
hori ez al da nahikoa?”
Jainkoa eta urkoa maite,
hori da benetakoa.

7

Kultoa eta bizitza
biak batera dabilta.
Bizitza bera da kristauontzat
zeruan sartzeko giltza;
bizitza bako kultoa hutsa da,
holan da Jaunaren Hitza.

8

Aitaren bihotz zabala,
gitxi da guk esan-ahala.
Espirituak gure bihotza
graziz zabaldu daiala;
seme-alabok izan gaitzean
Aita, Zeu zaran bezala.